



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea
Facultad de Ciencias Sociales y de la Comunicación

Zientzia Politikoak eta Kudeaketa Publikoa
2016-2017 IKASTURTEA

EMAKUMEZKOEN ERRUGBIAREN MASKULINIZAZIOA
EGILEA: Mirari Ullibarri Ugarriza
ZUZENDARIA: Arantxa Elizondo Lopetegui

Data, 2017eko irailaren 4a

“Escribo desde la fealdad, y para las feas, las viejas, las camioneras, las frías, las mal folladas, las infollables, las histéricas, las taradas, todas las excluidas del gran mercado de la buena chica. Y empiezo por aquí para que las cosas queden claras: no me disculpo de nada ni vengo a quejarme. No cambiaría mi lugar por ningún otro, porque ser Virginie Despentes me parece un asunto más interesante que ningún otro.”

Virginie Despentes, Teoría King Kong (2006).

Aurkibidea

| | |
|--|--------------------------------------|
| 1.SARRERA..... | 3 |
| 1.1 Lanaren aurkezpena..... | 3 |
| 2.2 Ikerketaren Helburuak | 4 |
| 2. MARKO TEORIKOA..... | 5 |
| 2.1 Terminologia..... | 5 |
| 2.2 Ikergaia | 7 |
| 2.3 Hipotesiak..... | 11 |
| 3. METODOLOGIA..... | 12 |
| 3.1 Teknika metodologikoak..... | 12 |
| 3.2 Pausu metodologikoak..... | 13 |
| 3.3 Ondorio metodologikoa..... | 14 |
| 4. LANAREN GARAPENA | 15 |
| 4.1 Sakoneko Elkarrizketak..... | 16 |
| 4.2 Eztabaida Taldeak..... | 19 |
| 4.3 Gaien analisisa..... | 23 |
| 5.ONDORIOAK | 24 |
| 5.1 Metodologiarekin lotutako ondorioak..... | 25 |
| 5.2 Ikerketarekin lotutako ondorioak..... | 26 |
| BIBLIOGRAFIA | 26 |
| ERANSKINAK | ¡Error! Marcador no definido. |

1.SARRERA

1.1 Lanaren aurkezpena

Azaroan, Gradu Amaierako Lana erabakitzekeo hautua egin nuenean, buruan zenbait ideia nituen arren, kezka zein zalantza ugari bildu ziren nirean;

-*Zeri eman garrantzia?* metodologiari, gai historiko bati, gaur egungo gizarte arazoari edota egunerokotasunean nire barnean zegoen kezkarri.

-*Nola erabaki GRAL tutorea?* Gaiaren arabera, berarekin izandako esperientzia kontuan izanik edota irakurritako lanak gidatuta.

Hala ere, denbora aurrera joan ahala geroz eta argiago izan nuen genero ikerketa bat gauzatu nahi nuela; azken batean, emakume bezala perspektiba desberdina jorratu nezakeen, askotan azaleratzen ez den ikuspuntua alegia. Gaiaren kontua ikusita eta pertzepzio pertsonala landu nahi nuela azpimarratuz, bizitzan zehar egunerokotasunean pairatutako arazo bati ahotsa eskainiko niola bururatu zitzaidan, honela ikerketa aurrera eramatearen prozesua eramangarriagoa izan ez ezik interesgarriagoa ere egingo zen.

Geroz eta gehiago entzuten da, emakumezkoa diskriminazioa pairatzen duela eta pairatu izan duela historian zehar. Honelako fenomenoak, hedabideetan, liburuetan zein kalean ikusten dugu momentu oro, diskriminazioa zeharkakoa baita, hau da, beste hitz batzuetan, gizarteak eratzen dituen estruktura guztietan hedatuta dago. Horregatik, horrekin bat egiteko gertuko izan dudana eremu baten egoera azaleratu nahiko nuke lan honen bitartez. Behin eta berriz aipatutako esparru hori kirola da, txikitatik izan naiz kirolari, hortaz, diziplina ugari probatzeko aukera izan dut eta horietan guztietan emakumearekiko bazterkeri argia dagoela esan dezaket.

Beraz, ikerketa honen bitartez, kirolean aritzen diren emakumezkoek sufritzen duten gutxiespena azaleratzea zein hausnartzea bilatzen dut, honela generoa eta kirola batzen dituen fenomeno bat jorratuz.

Geroago, marko teorikoan azalduko dudana bezala, historian zehar kirola gizonezkoen esparruan kokatua izan da, horregatik, sexu honen zereginen barne sailkatu da, bestea, kasu honetan, emakumezkoak, horretatik at utziz. Hau guztia kontuan izanik, Gradu Amaiera honetan dugun protagonista azaleratzen da, maskulinizazioa alegia, hots, emakumezkoak kirola praktikatzeko jasaten duten aurreiritzien atxikipena.

Bestetik, bizipen pertsonalaz ari garelarik, kasu honetan ikerketa esparrua errugbiaren moldatuko dudala aipatu beharra daukat, errugbi jokalariei bezala emakumeek duten egoera azaleratzera hain zuzen ere.

Zehatzago esanda, Gradu Amaierako Lan honetan jorratuko ditudan gaiak honako hauek dira; emakumea, diskriminazioa, bizipena pertsonala, kirola eta espresuki errugbia.

Sarrerari bukaera emateko, esan beharra daukat ikerketa modu egoki zein ordenatuan aurrera eramanez ahal izateko ezinbestekoa egin zaidala metodologia zehatz bat aplikatzea (hurrengo puntuetan garatuago azalduko dudana). Hala eta guztiz ere, sarrera honetan berebizikoa da, metodologia kualitatiboa erabili dudala azaltzea eta beraz, lanean jorratutako teknikak honen barne kokatzen direla argi ustea. Hau horrela izanik, lanean zehar erabilitako teknikak hiru izan dira: sakoneko elkarrizketak, eztabaida taldeak eta errebisio bibliografikoa. Hori gutxi balitz, geroago justifikatuko dudana bezala, ikerketaren prozedura bakoitza

aplikatzeko metodologia eta ezaugarri desberdinak daude eta hortaz, amaieran hauen arteko konparazio txikia ere egitea egokia iruditu zait.

2.2 Ikerketaren Helburuak

Sarreran aipatu bezala lan honen helburu nagusia, egunerokotasunean gauzatzen den diskriminazio bat azaleratzea zein ikertzea da, kasu honetan, emakumezkoen errugbiari atxikitzen zaion maskulinizazioa aztertzea izango da. Horretarako, lanaren aurkezpenean azaldu dudana bezala genero ikerketa bat aurrera eramango dut, ikerketa esploratzailea hain zuzen ere, honela nire aztergaiaren lehendabiziko hurbilpena lortuz.

Ikerketaren xede esanguratsuena aipatu ostean, lan honek ere zeharkako helburu batzuk dituela aipatu beharra daukat: batetik, gradu honetan zehar ikasitako metodologiak praktikan jartzea eta honela hauen arteko konparazio txiki bat egitea eta bestetik, genero ikerketa emakumezkoaren pertzepzioetik eta are eta gehiago pertzepzio pertsonaletik jorratu ahal izatea.

2. MARKO TEORIKOA

Behin, lanaren aurkezpena zein ikerketaren helburuak zehaztuta ditudanean, Gradu Amaierako Lanaren oinarri handienetariko bat azaltzea dagokit, marko teorikoa hain zuzen ere. Horretarako, errebisio bibliografikoa egitea beharrezkoa da, beste hitz batzuekin, artikulua zein liburu desberdinen bitartez eskuratutako informazioa erabili zein ordenatzea.

Marko teoriko honek pasarte desberdinak izango ditu; hasieran, Gradu Amaierako Lan honetan garatuko dudako terminologiaren inguruan zenbait kontzeptu aztertuko ditut, bigarrenez, ikergaiarekin lotutako informazioa zein datu interesgarriak azaleratuko ditut.

2.1 Terminologia

Generoa

“Emakumea ez da jaiotzen, izatera iristen da”
Simone de Beauvoir, *El segundo sexo* (1998)

“El género propio no se «hace» en soledad. Siempre-se está «haciendo» con o para otro, aunque el otro sea sólo imaginario” Judith Butler, *Deshacer el género* (2006)

Historian egondako bi emakume hauen esaldiak irakurri ondoren gauza bat argi dugu, sexua eta generoa ez dira gauza berdina eta horregatik Gradu Amaierako Lan honetan erabiliko dugun terminologian horiek definitzea beharrezkoa da.

Aurreko aipuetan ikusi bezala, generoa eraikuntza bat da, Simone de Beauvoiren arabera, jaiotzak berak ez dizu emetasuna ematen, emakumea bilakatzea prozesu bat baita, gizarte prozesua alegia. Honako tesiak urteetan zehar pentsatu duguna kuestionatzen du; azken batean, jaio bezain laster medikua markatzen gaitu emakumetzat edota gizonezkoetzat. Butlerrek bere partez, generoa jendartearen bitartez transmititzen dela aipatzen du; azken batean, zaila iruditu daitekeen arren, zure testuingurua zein bizitza gizartean ez garatzekotan ez duzu generoaren honelako pertzepziorik izango.

Laburbilduz, esan dezakegu generoa eraikuntza prozesu bat den heinean, ideologien, pentsamenduen zein sinesmen multzoa dela eta jendartean garatzen den honako transmisioa edonori atxikitzen zaiola, hots, gizartean bizi den kide orori.

Ezin dugu ahaztu, sozializazio prozesu honek kultura hegemonikoaren erantzule dela eta honen bitartez, generoen arteko banaketa ez ezik aurreiritziak garatzen direla. Hortaz, ideian multzo honen transmisioak balore hegemonikoari egiten dio erreferentzia, hori dela eta, garatzen den prozesua ikuspuntu determinatu baten erantzule izango da. Berrito ere, Butlerren aipuari erreferentzia eginez, egia da orain aipatu bezala, kultura konkretu bati erreferentzia

egiten dion gizarte eraikuntza bat dela generoa, eta hau horrela izanik, generoa desagiteko aukera ere badagoela azaleratzen du. (Soler Prat, 2000, o.103).

Beraz, paragrafo hauetan erabilitako kontzeptuak argi usteko: generoa kultura hegemonikoaren baloreen (ideologia, sinesmen, ikuspuntu) bitartez garatzen den gizarte eraikuntza bat da eta eratzen den heinean hura desagituratzeko aukera ere badago.

Sexua

“El sexo viene determinado por la naturaleza, una persona nace con sexo masculino o femenino. En cambio, el género, varón o mujer, se aprende, puede ser educado, cambiado y manipulado.” Sara Berbel, *Sobre género, sexo y mujeres* (2004)

“El sexo es una tecnología de dominación heterosocial que reduce el cuerpo a zonas erógenas en función de una distribución asimétrica del poder entre los géneros (femenino/masculino), haciendo coincidir ciertos afectos con determinados órganos, ciertas sensaciones con determinadas reacciones anatómicas.” Beatriz Preciado, *Manifiesto Contrasexual* (2002)

Generoaren definizioa aurrera eramateko marko internazionalen historian egondako bi emakumeen aipuak erabili ditugu, kasu honetan sexuaren inguruko zenbait ikuspuntu azaleratzeko, marko penintsularrean kokatzen diren bi autoreen esaldiak erabili ditut: Sara Berbelena eta Beatriz Preciadorena.

Gizarte psikologian doktoretza duen emakumearen arabera, lehen aipatu bezala generoa gizarte eraikuntza bat da, baina sexua aldiz, naturalki zehaztutako kontua da, honela jaiotzan indibiduo bakoitzari sexu maskulinoa edo femeninoa ezarritik.

Filosofa feministak bere partez, ez dator bat aurreko tesiarekin; bere aburuz, sexua ere eraikitako kontua da eta hura askotan sexuen arteko hierarkizazio bat gauzatzeko erabilia izaten da. Hori gutxi balitz, autore honen arabera, sexua izendatzeko erabiltzen den kontu bakarra organo genitalak dira, eta bere ikuspuntuan, kontuan hartu beharreko beste puntu batzuk ere daude.

Hortaz, autore hauek azaleratutako tesiarekin bat eginez, sexua naturalki jaiotzez ezartzen da, hala eta guztiz ere, ezarpen honetan zeharkako interesak agertzen dira eta binomio honen egozpena sinplista da, faktore bakarra kontuan hartzen duelako.

Estereotipoak

Estereotipoak sinesmenetan, aurreiritzietan zein igurikimenetan oinarritzen dira eta hauen arabera, gizarte bizi diren pertsonen jarduerak ebaluatu egiten dira.

Kasu honi erreferentzia eginez, generoarekin lotutako estereotipoak gizonezkoen eta emakumezkoen artean gauzatzen den tratu desberdinaren erantzule dira, txikitatik garatutako gizarte prozesuaren erantzule alegia.

Estereotipoak ere, gehienetan edota askotan gizarte kontrola eramateko erabiliak izan dira; izan ere, sinesmen hauen biziraupenarekin jendartearen rol batzuk eratzen dira eta hauen arabera, talde baten kontrola errazagoa bilakatzen da. (Antunez Miranda, 2006, o.1)

Emakumezkoen Errugbiaren Maskulinizazioa

Hau horrela izanik, generoa ez da ebaluazio zein gizarte kontrol honetatik at geratuko; izan ere, generoa gizarte eraikuntza bat den heinean bere barne sustatutako rola ere menderatze forma izango dira. Modu berdinean, honako aurreiritziak banaketa binomikoa handiagotu ez ezik errotu ere egiten dute, era honetan sexuari ezarritako sinesmenak generoari transmitituz. Hau da, estereotipoen eraginez, jaiotzez sexu bat egokitzen zaizunez, indarrez sexu hori lotzen zaion generoaren jarduerak aurrera eramana behar dituzu.

Maskulinizazioa

Generoa zein estereotipoak gizarte eraikuntza bezala ulertuko ditugu eta maskulinizazio terminoa honekin guztiarekin, erlazio zuzena dauka; azken batean, eratzen diren ohiturei egiten die erreferentzia. Ekintza bat maskulinoa izango da, gizartean gizonezkoen generoari dagozkion ohitura eta baloreen barne sailkatzen bada, hau da, beste hitz batzuekin, ekintza maskulinoa izango da arrei sexu maskulinoari ezarritako genero pertzepzioen barruan kokatzen bada.

Feminitatea

Generoa eta estereotipoak gizarte eraikuntza diren bezala feminitatea ere bada, honelako subjektibitatea historian zehar jasotako kanonei erantzuten die, emeek jasotako kanonei hain zuzen ere. Ekintza bat femeninoa dela esango dugu, emeei atxikitzen zaien generoari lotutako ohitura zein baloreen barne sailkatzen bada, hots, ekintza bat femeninoa izango da, gizartearen pertzepzioaren barruan emeek egin beharko luketen gauzen barruan sailkatzen badugu.

Honelako kontzeptuak hobeto ulertzeko taula bat eraiki dut.

| GENEROA | SEXUA | ROLAK |
|-------------|-------|------------|
| GIZONEZKOA | ARRA | MASKULINOA |
| EMAKUMEZKOA | EMEA | FEMENINOA |

2.2 IKERGAIA

Manuel Martinez Herrerak “La construcción de la feminidad: la mujer como sujeto de la historia y como sujeto de deseo” (2007) liburuan aipatzen duen bezala : “*La historia oficial es escrita por el hombre que asume la representación universal de la humanidad; otra muy diferente es la historia de las mujeres.*”

Esaldi honetan aipatzen den bezala, historia gizonek idatzia izan da, honela historiaren hizpide eta zentrotzat sexu bakar bat hartuz. Hala eta guztiz ere, horrek ez du esan nahi emakumeek historiaren protagonista izateko aukera ez dugunik edota gure historia propiorik ez dugunik, honen esanahia denbora zehar arrazoi desberdinengatik gure protagonismoa edota partaidetza gutxietsi edota ezkutatu dutela da. Horregatik, sarreran aipatu bezala Gradu Amaierako Lan honetan, emakumeak hizpide izango dira, eta ez hori bakarrik, honen bitartez denboran zehar pairatutako diskriminazio bat azaleratu egingo da.

Mendeetan zehar gizartea binomio ugarietan banatua egon da, eguna edo gaua, emakumea edo gizona, kalea edo etxea, eremu pribatua edo publikoa. Honelako banaketak edota bazterkeriak, estigma eta tesi desberdinak sortu izan ditu eta hauen adibide garbia, gizon zein emakumei ezarritakoak dira. Estigmatizazio honen eraginez, badirudi gizonezkoari eremu publikoa zegokiola eta emakumezkoari aldiz, eremu pribatua. (Peña eta Jaramillo, 2001, o.6)

Emakumezkoen Errugbiaren Maskulinizazioa

Banaketa horrela izanik, gizonezkoen eremu publikoan garatzen ziren ekintzak zegozkien; esparru politikoa, militarra edota kirol esparrua esate baterako, eta bestetik, emakumezkoen komentatu bezala eremu pribatuan garatzen zirenak; etxeko lanak (gosaria, bazkaria, afaria egin, etxeko garbiketa ...) eta umeen zaintza.

Etxean aurrera eramandako lanak ez ziren eta gaur egun ere, ez dira hazkunde ekonomikoaren bitartez kontabilizatzen eta hortaz, ez dira eremu publikoan agertuko. Arrazoi honengatik, eredu ekonomikoaren barne sailkatu ezin den jarduera izateagatik, gutxiespena jaso du, era berean, binomioarekin eta aurreko tesiarekin jarraituz, emakumezkoari zegozkion jarduerak zirenez, emakumezkoa ere gutxietsi egiten da.

Hortaz, eremu publikoaren eta pribatuaren arteko desberdintasunak hierarkia bat sortuko du, honela emakumezkoen eta gizonezkoen jardueren artean ere hierarkia ez ezik diskriminazioa ere sortuz. (Montón Subías, Sandra, 2000, o.47)

Urteak aurrera joan ahala, emakumea debekatutako espazio horiek (esparru politikoa, militarra, kirol esparrua...) okupatzen joan da. Hala eta guztiz ere, pauso horiek aurrerakuntza bat islatzen duten aurrean, pausu horiek eman ahala gehienetan gizartearen gaitzespena izan du, haienezko esparruak ez zirela auziperatuz, gizonezkoen zegozkien roletan aritzeagatik kritikatu hain zuzen ere. (Peña y Jaramillo, 2001, o.6)

Kritikak edota debekuak pairatu izanagatik, emakumeak historian zehar ez du ikuskizun publikoetan parte hartu, are eta gutxiago, kirol ikuskizunetan. Hauetan parte hartu izatekotan, asko jota, dantza edota antzerkiarekin loturik zeuden espektakuluak ziren, hauek haien ezaugarri fisiko eta kulturei hobeto egokitzen baitziren. Beraz, emakumeak kirol ekintzak praktikatzekotan edota gizarteak haienezko egokiak ez ziren kirola praktikatzekotan jendartearen begitik urrun geratzen ziren, eremu pribatuan alegia. (Salcedo Miguel, 1993, o. 23).

Hortaz, ikergaiaren txertatuz eta aurreneko paragrafo hauetan eskuratutako informazioa ondorioztatuz, aipatzekoa da, kirol eremuan emakumeak diskriminazio ugari jasan izan dituela eta gehienetan, gizartearen sinesmenen erruz izan dela, jendartearen ustetan gizonezkoen zegozkien kirolak praktikatzeko espresuki.

Ez hori bakarrik, aipatu bezala kirola ezin da bereizketa honetatik at geratu; azken batean, honek ere, bere ateak itxi egin zizkion eta egiten dizkio oraindik. Honelako pentsamoldeak, emakumea kirol eremutik urrun mantendu du urteetan zehar, txikietatik ulertu izan baitu kirola bere mundutik at zegoen ekintza bat izango balitz bezala.

Arrazoi berdinarengatik, ezagutzen zuten sistema horretatik edota inposatutako eremu horretatik kirola at geratzen zen ekintza zenez, berarekin lotutako zenbait ezaugarri ere alboratu egin zituzten, askotan maskulino atzizkia txertatuz. Horren adibide garbia dira lehiakortasuna edo oldarkortasuna duen konnotazioa, hau da, lehiakortasuna gehienetan gizonezkoen jarduerak izango balitz bezala ikustarazten zen, emakumeak lehiakorrak izateko aukerarik izango ez balute bezala. (Antunez Miranda, 2006, o.4)

Beraz, marko teoriko honen bigarren zatian murgilduta gaudelarik, gogoan izan behar dugu, generoa eraikuntza sozial bat dela, beste hitz batzuetan, kulturaren eraginez sortutako ideologiaren batuketan da. Pentsamenduen batuketa honen eraginez, emakumezkoak emakumezko izateagatik eta gizonezkoak gizonezko izateagatik gauzak nola eta norekin egin behar dituzten markatzen da.

Honelako aurreiritziak, kultura hegemonikoan garatzen den prozesu baten bitartez transmititzen da, eta honela historian zehar garatutako estereotipoak biziraun dezakete. (Soler Prat, 2000, o.103).

Hau horrela izanik, emakumeak kirola praktikatzeko gaizki ikusita dago, eremu pribatutik at geratzen den jarduerak delako. Hortaz, kirola egitea gizartearen aburuz genero maskulinoaren

Emakumezkoen Errugbiaren Maskulinizazioa

eginbeharreko kontuak dira, hori dela eta, emakumea eremu horretatik at geratzen zen. Baina ikergaian txertatuz, aipatzekoa da kirolen arteko bazterkeria ere desberdina zela, beste hitz batzuetan, kirol bakoitzaren ezaugarrien arabera batzuk besteak baino onargarritasun handiagoa izango dute.

Aurrez aipatu bezala, emakumezkoak dantza edota antzerkia bezalako ariketa fisikoak praktikatzea ez zegoen gaizki ikusita, baina beste kirolei erreparatzen badiegu, balantza zeharo aldatu egiten da.

Honen adibide garbia errugbia da; azken batean, hain handiak dira kirol honen inguruan dauden estereotipoak zein oztopoak, non askotan emakumezkoaren gorputza maskulinizatzen ere jotzen duten. Honelako jarrerak bere hedapena eragotzi ez ezik emakumeak aldendu ere egiten ditu, hauentzako egokia ez dela asimilatuz.

Gratu Amaierako Lan honetan marko teorikoan agertzen den kontzeptu bat azpimarratzeko (Navarro eta Stimpson, 1999)ren esaldi bat gogoratuko dugu: *“Son las sociedades y las familias quienes dictaminan que las criaturas hembras se transformen en femeninas y que las criaturas machos se transformen en masculinos”*.

Hau da, lehen komentatu bezala generoa gizarte eraikuntza bat da eta hortaz, honekin lotutako oro ere, muntatze bat izango da.

Badaude jendartearen pertzepzioaren arabera, kirol batzuk besteak baino maskulinoagoak direnak, hauetan indar fisiko gehiago erabili behar delako edota kontaktu gehiago dagoelako, kontua da, hauek emakumezkoak praktikatzen dituzten arren maskulinoak izaten jarraitzen dutela. Askoren aburuz, honelako kirolak praktikatzen dituzten emakumeak rol maskulinoak erreproduzitzen dituzte, hala eta guztiz ere, estereotipoen eraikuntza hau ezin da teorizatu, hots, ezin da finkoa egin eta hori gutxi balitz, ezin da esan honako emakumeak feminitate hegemonikotik at geratzen direla.

Hortaz, teorizazio honen arabera, generoak duen indarra ez da desagertzen banan-banakoa bilakatzen baizik, hau da, estereotipoek duten indarra jokalaria bakoitzean du eragina, subjektu bakoitzean alegia. (Puig Nuria, 2000, o.101)

| CUALIDADES FISICAS | | DEPORTES | |
|--------------------|-------------------|------------|--------------------|
| MUJERES | HOMBRES | FEMENINOS | MASCULINOS |
| Motricidad fina | Motricidad gruesa | Gimnasia | Fútbol |
| Coordinación | Fuerza | Natación | Boxeo |
| Flexibilidad | Velocidad | Patin | Lucha grecorromana |
| Equilibrio | Masa muscular | Tenis | Rugby |
| Creatividad | Agonística | Baloncesto | Halterofilia |
| | | Atletismo | Bicicleta |
| | | Golf | Básquet |
| | | Danzas | Balonmano |

FUENTES: 1) Gallo Cadavid y equipo. 2002, 2) Hargreaves, J, 3) Benilde Vázquez, 4) Ma Alicia Rubio Casado

Honako taula Antunez Mirandaren analisiaren (2006) *“Los estereotipos de Género en la Práctica de Actividades Físicas y Deportivas, 2006”*, azkeneko orrialdeetan agertzen da, bertan azterketa guztian zehar erabilitako bibliografiaren laburpena bat egiten du. Ikusi dezakegun bezala hasieratik banakuntza bat egiten du, alde batetik, gizonezkoen eta emakumezkoen ezaugarri fisikoak sailkatzen ditu eta bestetik, kirolak feminitate eta maskulinitatearen arabera.

Lehendabiziko taula honen arabera, emakumezkoek motrizitate fina, koordinazioa, oreka eta sormena dute, gizonezkoek aldiz, motrizitate lodia, indarra, abiadura, masa muskular handia eta agnostikoa dute.

Emakumezkoen Errugbiaren Maskulinizazioa

Bigarren taula, aurrez komentatu bezala kirolak feminitate zein maskulinitatea kontuan izanik sailkatzen ditu honela, gimnasia, igeriketa, patinajea, tenis, saskibaloia, atletismoa, golfa eta dantzak emakumezkoen generoari dagozkion kirolak izango balira baieztatuz eta ondoko ilaran jarduera maskulinoak topatuko ditugu, futbola, borroka greko-erromatarra, errugbia, halterofilia, bizikleta, saskibaloia eta eskubaloia.

Beraz, honako taula hau, bibliografia baten azterketaren ondorioa da eta bertan gizartearen arabera sailkapen garrantzitsu batzuk egiten digu, honetan ere, marko teorikorako berebizikoa den datu bat agertzen da, errugbia maskulinozat hartzen duela hain zuzen ere. Zerrendatze honen interpretaziora jotzen badugu, pentsa dezakegu errugbia gizonezkoen ezaugarri fisikoetara moldatzen dela (abiadura, indarra, masa muskularra ...) eta modu berdinean, emakumezkoen eredu fisikotik urruntzen dela (koordinazioa, oreka, sormena ...).

Kulturaren ikuspuntu hegemonikotik baloreen arteko aurkaritza adierazten da, modu honetan gizarteratze prozesuan atxikitzen diren kodigo korporalak kirolaren eremura transmititzen. Horregatik, logikoa da indarra gailentzen duten kiroleatik emakumeak urruntzea, gizarteratze prozesuak hori egitea gomendatu baitie, honela berriz ere, estereotipoak kirolean atxikitzen, honela berriz ere, binominoaren banaketa eginez. Horrela emakumeek boxeo zein errugbia haietzako egokiak ez direla pentsatzen dute, gizonezkoek gimnasia erritmikoa haietzako jarduera ez dela uste duten diren modu berdinean. (Buñuel Heras, 1994, o. 104).

Honekin guztiarekin esan beharra dago, kirola forma sistematikoan eta formalean praktikatzeko emakumeek eta are eta gehiago, estereotipo maskulinoz beteriko kirolak praktikatzeko dituztenek, "naturaltasuna" kuestionatzen dutela; azken batean, kirola eta norbanakoaren ezaugarri arteko lotura hori zalantzan jartzen dute. Hori gutxi balitz, hauetzako "egokia" ez den kirola praktikatzeko aproposa den hori ere kuestionatzen dute. (Markula, 2003, o.97)

Hori gutxi balitz, beste autore batzuk seinalatzen duen bezala kirola eremua globala den heinean maskulinizatua dago; izan ere, munduan dauden botere isla guztiak edo gehienak gizonezkoek kontrolatzen dituzte. Ondorioz, kirolaren difusio globala balantza hierarkiko horren erakusle edota adierazle da, bertan sexu desberdintasunaren gaineko diskriminazioa ikuskatuz zein hedatuz. (Bordieu, 2000, o.20)

Errebisio bibliografikoan behin eta berriz azpimarratu dugun termino bati erreferentzia egiteko diskriminazioaz arituko gara; izan ere, tratu honetaz ari garelarik, aipatzekoa da, sexu honetako kirolarietako deskalkifikazioak ez dituztela soilik jendartearen eskutik jasotzen baizik eta, hauek ordezkatzeko dituzten taldeetatik edota instituzioetatik ere, honela behin eta berriz, azpimarratu den hierarkia azaleratuz.

Hasieran komentatu bezala, kirola emakumeentzako esparrua ez zela argudiatzen zuten, modu honetan, emakumezkoen ezaugarri fisikoak kirola praktikatzekoekin bat egiten ez zutelako aipatuz, baina taldeek edota instituzioek aurrera eramaten duten diskriminazioa haratago doa. Kirolarietako emakumezkoak izanagatik jasotzen duten diru laguntza murriztagoa da eta kirolarietako emakumezkoak izanagatik jasotzen duten entrenamendu babesa murriztagoa ere bada.

Marko teorikoari amaiera emateko, zenbait datu kuantitatibo azaleratuko ditut, egia da, sarreran zein ikergaiaren definizioan aipatu bezala, lan honetan aurrera eramango dudako ikerketa kualitatiboa dela, baina honako datu hauek zertzelada batzuk eskainiko dizkiote ikerketari, honela gaiari ere, informazio desberdina ematen.

Honako datu hauek Euskadiko Errugbi Federazioko web gunean jasota daude (<http://euskadirugby.eus/>) (Kontsulta data: 2017-09-02) eta hauen arabera Euskal Herrian senior

Emakumezkoen Errugbiaren Maskulinizazioa

mailan, gizezkoentzako bi liga daude eta emakumeentzako bakarra. Senior mailan jolasten duten taldeak batzen baditugu hogeita hiru izango ditugu guztira, eta emakumezkoena batzekotan aldiz, bederatzi, adierazi beharra dago, aurten emakumezkoen txapelketan jokatu duten horietatik lauk sartu berri direla, hots, 2015-2016. urteko txapelketan soilik 5 talde zeudela.

Hori gutxi balitz, Euskadiko Erkidegoko web gune ofizialetik (<http://www.euskadi.eus/inicio/>) (Kontsulta data: 2017-09-04) eranskinetan agertuko den taulatik alegia, hainbat datu eskuratu ditugu. Hauen arabera, 2016. urtean erkideko honetan federatutako errugbi jokalaria 1.597 izan ziren, horietatik, 1.452 gizezkoak izan ziren eta hortaz, emakumezkoak 145, hau da, urte honetan egondako fitxen %9,08 soilik izan ziren emakumezkoenak.

Beraz, datu hauen bitartez pentsa dezakegu, gaur egun eta behintzat Euskal Herri mailan, gizezkoek emakumezkoak baino gehiago praktikatzen dutela errugbia, antza denez, emakumezkoak ez dira honako kirola jokatzerantz animatzen. Hortaz, arrazoiak bilatzeko asmoz ikerketa hau aurrera eramango dut eta horretarako hurrengo puntuan gauzatuko ditudan hipotesiak beharrezkoak dira.

2.3 Hipotesiak

Gratu Amaierako Lan honetan jorratutako genero ikerketa aurrera eramanez ahal izateko beharrezkoa da hipotesien formulazio zehatz eta egokia egitea, kasu honetan “emakumezkoen errugbiaren maskulinizazioa” azterketako bi hipotesi kausal erabiliko ditut.

Hipotesi mota hauek aukeratzeko erabakia, aldagaien edo kontzeptuen artean harreman ausartenak adierazten dituztelako egin nuen, hots, ikerketan zehar landutako aldagaien arteko harreman zuzena dagoelako. Hori gutxi balitz, hipotesi mota honek, fenomenoak sakontasunean ezagutzeko aukera ematen dizu. (Juaristi, 2003, o.30)

Behin hipotesien tipologia azalduta dagoelarik hauek aurkeztea bakarrik geratzen da:

1. Emakumezkoen errugbia ez dator bat feminitate arau hegemonikoekin
2. Emakumearen presentzia errugbian ez dago ondo ikusia.
3. Errugbia praktikatzea jarduera maskulintzat hartzen da.

3. METODOLOGIA

Gratu Amaierako ikerketa honen metodologia azaltzeko esan beharra daukat gradu guztian zehar erabili izan dugun liburu bat izan dudala oinarritzat eta hori hain zuzen ere, Patxi Juaristiren “*Gizarte ikerketarako teknikak. Teoria eta adibideak.*” (2003) da, bertan ikerketa bat gauzatzeko puntuz- puntuko azalpena agertzen baita.

Gizarte Zientzietako ikerketa bat gauzatu dudanez, honetan gehien erabiltzen den diseinua aurrera eramanez, honako diseinu ez esperimentalak da, bertan ikertzaileak ez du aldagai askerik ez aztergai diren kasuak zein fenomenoak edota portaerak kontrolatzeko ahalmenik.

Autorearen aholkuak jarraituz, ohiko ikerketa sailkapenaren aurretik “erabilgarriagoa da, gizarte ikerketarako tekniken sailkapena informazioa biltzeko duten bidearen arabera egitea” (Juaristi,2003,o.14). Hau horrela izanik, esan beharra dago, gaurko ikerketak gizakien eta euren ikuspuntuen, jarreran edota portaeretan duela jo muga, horregatik, sakoneko elkarrizketak eta eztabaida taldeak erabiltzea egokiena iruditu zait.

Liburuaren autoreak dioten bezala, gure ikerketa aurrera eramateko erabiliko ditugun teknikan ez dira bakarrik kanpoko irudian oinarritzen, beste hitz batzuetan, ez dutela bakarrik kanpoko portaera kontuan hartzen, hori dela eta, ikerketa hobeto aztertzeko, hautatutako metodologiaren arabera sakoneko informazioa eskuratzeko aukerarik onena gizakiei galdetzea da.

3.1 Teknika metodologikoak

- Elkarrizketa sakonak: Adierazgarritasuna ziurtatu ezin duten baina zenbaki azpian ezkututzen den informazio konplexu eta aberatsa sakonean ezagutzen laguntzen du teknika honek. Honen bitartez ere, elkarrizketatuarentzat garrantzitsua eta adierazgarria dena ezagutu daiteke (Juaristi, 2003,o.139)

Honelako informazioa eskuratu ahal izateko ezinbestekoa da, elkarrizketa sakonak konfiantzazko harremana azaleratzea;azken batean, honelako egoera testuinguru eroso batean ez gauzatzekotan ez ziren sakoneko datuak eskuratuko. Hala eta guztiz ere, horrek ez du esan nahi elkarrizketa era kontrolatuan eramanez behar ez denik edota gidoirik ez duenik.

Beraz, honako puntu hauek ikusi ostean sakoneko elkarrizketa egokiena iruditu zitzaidan gaiaren inguruko bi espezializatuen informazioa eskuratu ahal izateko. Batetik, Jarduera Fisiko eta kirol zientzietan Lizentziatu den eta gaur egun, Eskola Kirola eta Kirol eremuko berdintasun programaren arduraduna Eusko Jaurlaritzan den Dorleta Ugalde elkarrizketatuko dut, honela ikuspuntu teoriko bat lortuz eta bestetik, emakumezkoen errugbia jokalaria internazionala izan den Aitziber Porrás elkarrizketatuko dut, beraren bitartez ikuspegi pertsonalaren afera eskuratuz.

- Eztabaida taldea: Datu kualitatiboak lortzeko erabiltzen den teknika esanguratsuenetarikoa da. Honetan, moderatzailearen eta taldekide batzuen artean egiten den eztabaida da, bertan taldekideentzat garrantzitsua eta adierazgarria dena ezagutu nahi du moderatzaileak. Garrantzitsua da, honako teknikan ikertzaileak

lortutako informazioa kontrolatzea, ez baitu zurruneke gidoirik eta eztabaidak hartzen duen norabidearen arabera hura aldatu daiteke.

Eztabaida taldeek aurrera eramaten duten metodologia aproposa da gizakion portaeraren inguruko sakoneko informazioa eskuratu ahal izateko. Horregatik, behin ikergaiaren izaera azterturik ezinbestekoa iruditu zitzaidan honelako teknika ikerketan txertatzea; azken batean, gure ikerketaren oinarria datu kualitatiboak direnez eta sakoneko informazioa behar dugunez teknika ezin hobea da.

Honako metodologia aurrera eramateko, bi eztabaida talde sortu ditut, modu honetan ezaugarri desberdinetako pertsonak ikertuz; lehendabizikoan, talde homogeneoa izango da, bertan guztiak emakumeak izango dira eta horretaz aparte, guztiak ere errugbi jokalaria, bigarrenean aldiz, bereizgarri desberdinetako gazteak topatuko ditugu, honetan, sexua, afizioak eta kirol zaletasunak desberdinak izango baitira.

- Errebisio bibliografikoa: Nola ez ikerketa egokia gauzatu ahal izateko beharrezkoa da aurrez informazio bilketa egitea, honela ondoren, marko teorikoa eraikitzeke eta modu berdinean, geroago ikerketak zentzua lortu dezan. Hortaz, teknika honen bitartez, ikergaiaren gainean aurrez idatzirik dauden iturri ez-zuzenen analisia eta informazioaren hautaketa egingo da.

3.2 Pausu metodologikoak

- 1. Ingo pausua: Ikergaiaren definizioa eta informazioaren azterketa.

Gradu Amaierako Lan honen ikerketaren helburua argia da “gizartean egon daitezken arazoak konpontzea” (Juaristi, 2003, o.25). Definizioak at utzita, gure kasuan ikerketaren xede garrantzitsuena egunerokotasunean ematen den diskriminazio bat azaleratzea da, beste hitz batzuetan, gure kasuan emakumezkoen errugbian ematen diren bai trabak bai estereotipoak hain zuzen ere. Baina Juaristik aipatzen duen bezala, funtsa ez datza soilik azaleratzean baizik eta behin identifikaturik ditugunean, etorkizunean konpontzea.

Gauzak horrela izanik, ikergaiaren inguruko informazioa eskuratzeko eta honen azterketa egin ahal izateko, ikerketa kualitatiboari dagozkion hiru teknika erabiliko ditugu: Eztabaida taldeak, Sakoneko Elkarrizketa eta Errebisio bibliografikoa.

- 2. pausua: Ikerketaren diseinua

Sarreran aipatu bezala, genero ikerketa honen iturria bizipen pertsonalek sortutako gogoetak dira. Horregatik, bertan erabilitako teknikak (eztabaida taldeak eta elkarrizketa sakonak batez ere) lan enpirikoan oinarrituko zirela ebatzi nuen, hau da, esperientzietan sostengatuko zirela.

Hau horrela izanik, azaldu beharra dago, aztergai ditugun kasu guztietan langiketa ez-probabilistikoa gauzatu direla, beste hitz batzuetan, gizartearen ordezkapen zuzena ez dutela; azken batean, ikerketa aurrera eramateko komenientziatzko (ikerlariak oso hurbil edo eskuragarri dituen elementuak sartzen ditu laginean) zein iritzi laginak (ikerlariak gaiari buruz duen ezagutzaren arabera, subjektiboki aukeratzen duen lagina) erabili ditut. (Juaristi, 2003, o.72)

- 3. pausua: Datuen bilketa

Aukeratutako ikergaia aztertzeko hiru teknika erabili ditugu, honela lehen zein bigarren mailako informazioa eskuratu dugu. Lehen mailakoa, zuzenean eskuratzen den informazioa da, hots, bitartekorik gabe lortzen diren datuak, bigarren mailakoak, ordez, ez dira zuzenekoak. Hortaz, behin honakoa azalduta aipagarria da bai eztabaida taldeak bai elkarrizketak lehen mailako iturriak direla eta errebisio bibliografikoa aldiz, bigarren mailakoa.

Ondoren metodologiaren lanketan zein lanaren garapenean ikusiko dugun bezala elkarrizketak zein eztabaida taldeek gidoi zurrun batean oinarriturik ez dauden arren, hau da, horiek gauzatzeko erabiltzen den gidoia moldagarria den arren, estruktura bat dute (sarrera, ikergaian txertatzea, ondorioak ...) eta beraz, koordinazio baten beharra dute.

| 1. TEKNIKA (ELKARRIZKETA SAKONA) | 2. TEKNIKA (EZTABAIDA TALDEA) |
|--|-------------------------------|
| A) Genero ikerlaria | A) Heterogeneoa |
| B) Errugbi jokalaria profesionala | B) Homogeneoa |

Goiko taula honetan, Gradu Amaierako Laneko ikerketan erabiliko bi teknika agertzen dira, bakoitza bi talde desberdinetan sailkatua. Geroago azalduko dudana bezala bakoitzak bere ezaugarri propioak ditu eta horien arabera, teknika bakoitzaren moldaketa ez ezik datuen bilketa ere desberdina izango da.

- 4.pausua: Datuen azterketa eta ondorioen idazketa

Logikoa den heinean pausuko metodologiakoren azkeneko urratsa datuen azterketa eta ondorioen idazketa izango da; izan ere, erabilitako teknikek datu ugari azalatu dituzte, eta horien sailkatzea zein interpretazioa beharrezkoa dugu ikerketa egokia aurrera eramateko.

Ikerketaren ondorioetan ikusiko den bezala, hauek bi multzo desberdinetan banatuak izango dira; batetik, ikergaiarekin lotutako ondorioak eta bestetik, metodologiarekin lotutakoa. Ikerketa kualitatiboa izanik beharrezkoa ikusi baitut lan honetan erabili ditudan tekniken inguruko zenbait hausnarketa azalera.

3.3 Ondorio metodologikoak

Aurrez aipatu bezala, gizarte ikerketaren arabera sakoneko datuak lortzeko aukerarik onena gizakiei zuzenean galdetzea da eta horretarako Gradu Amaiera honetan bi teknika desberdin erabili ditugu; azken batean, gure ikergaiari eta hipotesiei erantzuna emateko egokien moldatzen direnak direla uste dut.

Metodologian ikusi dugun bezala, teknika desberdinen erabilerak eta bakoitzean bi kasu desberdinen aukeraketak, informazio anitza zein ekarpen desberdinak eman dizkit, honela Gradu Amaierako Lana aberastuz.

4. LANAREN GARAPENA

Gradu Amaierako Lana egiteko ikerketa kualitatiboa gauzatzeko erabakia hartu dut; azken batean honen bitartez, kontzeptuak sakontasunean ezagutu ez ezik zenbait kontzeptu eta ideia ere elaboratu daitezke, arrazoi honengatik gizarte ikerketa bat egiteko egokia da ikerketa mota hau.

Bestetik, honako lana giza ikerketa bat da eta azterketa mota honek bere barne berezitasun espezifikoak ditu; kasuari ahotsa eta garrantzia ematea adibidez. Horregatik, emakumezkoen errugbiak pairatzen duen gutxiespena eta maskulinizazioa azaleratzeko ezinbestekoa iruditu zait honako erabiltzea.

Gizartean badaude baztertuak diren taldeak, beste hitz batzuetan gizartearen hegemoniaz at geratzen direnak, horietan ezagunenak pobrezia ekonomikoa pairatzen dutenak, gutxiengo sexualak, gutxiengo arrazialak edota kulturalak izan daitezke. Talde hauek gehienetan, ez dute ahotsik gizartean, askotan ere ez baitira medioetan agertzen eta horretan, jakituna da emakumezkoen errugbia.

Emakumezkoen errugbia berez bazterkeri bikoitza pairatzen du; batetik, gutxiengo kirola izatea (ikusgaitasunik ez izatea, pertsona gutxi jokatzeko, laguntza ekonomiko gutxi izatea...) eta bestetik, emakumezkoek jolastea (kirolean ere emakumeak pairatzen duten diskriminazioa azaleratu egiten da, eta zentzugabekoa iruditu daitekeen arren, kirolarien sexuari atxikitzen zaion garrantzia berebizikoa da) .

Gradu Amaierako Lanaren hirugarren puntuan ikerketan erabili dudako metodologiaren inguruko hausnarketa burutu dut eta horrekin bat eginez, kontua da lanaren garapenarekin hasi baino lehenago azpimarratu beharreko kontu bat dugula, metodologia kualitatiboaren berebiziko zergatia eta hautua hain zuzen ere.

Metodo kualitatiboaren ezaugarriak kuantitatiboekin konparatzen dituzunean azaleratzen dira; azken batean, kuantitatiboek soilik datuen eransketa lortzeko erabiltzen dira eta metodo kualitatiboak, aldiz, hauen sakontasuna eskuratzeko (Ragin ,2007, o.160).

4.1 Sakoneko elkarrizketak

Denzin y Lincoln (2005, o.643, Vargas, 2012) “ La entrevista es una conversación, es el arte de realizar preguntar y escuchar respuestas”

Bi pertsonen arteko solasaldia baino haratago doan elkarrekintza da sakoneko elkarrizketa, honakoa gauzatu ahal izateko beharrezkoa da lasaitasunez edo etxekotasunez giro tutako lekua hautatzea; izan ere, modu honetan segurtasuna eskainiko zaio elkarrizketatuari. Arraroa iruditu daitekeen arren segurtasuna berebiziko puntua da gure ikerketan, elkarrizketatua babestua ez sentitzekotan barneko informazio hori ez baitu erraztasunez azaleratuko eta kanpoko datuak soilik eskuratu ahal izango ditugu.

Elkarrizketa sakonaren bidean murgiltzen gaudelarik Patxi Juaristik (2003) “*Gizarte ikerketarako teknikak. Teoria eta adibideak*” aipatzen duen bezala lau motatakoak existitzen dira, Gradu Amaierako Lan honetan gauzatutako elkarrizketak fokatuak eta kontrolekoak direla esan daiteke; azken batean, bai zehatz baten inguruan jardun dira eta gidoia zurruna ez izan arren horren ordena jarraitu izan dut, beraz elkarrizketatuak baino elkarrizketatzaileak jarri du solasaldiaren erritmoa.

Emakumezkoen Errugbiaren Maskulinizazioa

Aipatu bezala, sakoneko elkarrizketak prestatzeko gidoia beharrezkoa izan dut (honakoa eranskinen atalean izan dugu ikusgai). Elkarrizketarekin solasaldiak eman baino lehenago ezinezkoa egiten zitzaidan euren ideiak edota baloreak antzematea, horregatik ere, txostena jarraitzea egokia izan zen, bertan ere nire ikergaiaren ingurukoi hipotesiak eta loturak agertzen baitziren. Zaila egin zaidan arren, gidoiaren bitartez, galdera bakoitzari egokitzen diozun denbora kontrola dezakezu, modu honetan ere, elkarrizketaren erritmoa maneiatu ez ezik galdera bakoitzaren denbora ere bideratu daiteke.

Elkarrizketen garapenean ez nuen zuzenean ikergaira jo edota berez nituen dudak guztiak bat-batean azaleratu, modu horretan, ez baitzen konfiantzazko eremu bat sortuko eta solasaldia oso hotza bilakatu zitekeen. Horren aurrean, egoera ezkorra ez bilakatzeko, ikertu nahi nuen kasura apurka- apurka gerturatu nintzen; hasieran galdera orokorrak egin nituen eta ondoren, solasaldian minutuak aurrera joan ahala aztertu nahi nuen gaiaren inguruan arakatu nuen. Beste hitzetan, Patxi Juaristiren hitzetan alegia, elkarrizketa sakona inbutu baten forma izan behar du “*galdera orokorretatik gero eta zehatzagoetara pasatuko gara*”, prozesu honen bitartez, geroz eta erantzun aberatsagoak eskuratuz. (Juaristi, 2003, o. 144)

1. ELKARRIZKETA: Genero Ikertzailea

Kontaktazio prozesua ezinbestekoa da ikerketa bat aurrera eramateko garaian; azken batean, horren bitartez, elkarrizketarekin jartzen zara harremanetan bertan parte hartu nahi duen galdetzeko.

Lehenengo kasu honetan, ikergaia zehaztu nuenean argi izan nuen genero ikerlariren bat edota honetan jakituna izan zitekeen pertsona batekin jarri nahi nuela kontaktuan. Hortaz, Gradu Amaierako Lanaren tutorearekin hitz egin ostean eta honek zenbait izen igorri ostean aukeraketa bat egin nuen. Honela Jarduera Fisiko eta Kirol Zientzietan Lizentziatua den, gaur egun, Eusko Jaurlaritzan Eskola Kirola eta Kirol eremuko berdintasun programaren arduraduna den eta gainera, emakumea kirolean duen presentzia aztertzen duen zenbait ikerketa egin dituen emakume batekin jarri nintzen kontaktuan.

Harremanetan jarri bezain laster baiezkoa eman zidan, beraz, behin elkarrizketa sakoneko bi puntu garrantzitsu ezarrita nituenean (igorlearen aukeraketa eta honen onarpena), lekuaren zehaztapena geratzen zitzaidan. Honakoa, aurrez aipatu bezala konfiantza zein lasaitasuna islatu behar zuen, beraz, Eusko Jaurlaritzan dauden bilerak egiteko erabiltzen diren bulego batean hitzartu ginen.

Elkarrizketatuaren fitxa teknikoa azaldu baino lehenago azaleratu beharra dago, elkarrizketaren iraupena 24 minutukoa izan zela eta bertan bederatzi galdera egin nituela. Horrez gain, solasaldia grabagailu baten bitartez gorde egin zen, honela informazioa zaindu ez ezik transkripzioa ere erraztu egin zuen.

ELKARRIZKETATUAREN FITXA TEKNIKOA

IZEN ABIZENAK: Dorleta Ugalde Usandiaga

TELEFONOA: _945019489

SEXUA: _Emakumea

ADINA: _30-40

HERRIA: Zarautz

ELKARRIZKETA EGIN ZEN LEKUA: Eusko Jaurlaritzako O Eraikinean, 3. Solairuan, Gasteiz

EGUNA ETA ORDUA: Apirilaren 7an, 10:00

ELKARRIZKETAREN IRAUPENA: 24:05 minutu

ELKARRIZKETATUAREN BIBLIOGRAFIA LABURRA: Jarduera Fisiko eta Kirol Zientzietan Lizentziatua, Eskola Kirol eta Kirol eremuko berdintasun programaren arduraduna Eusko Jaurlaritzan eta emakumea kirolean duen presentziaren inguruan azterketak egin ditu.

ELKARRIZKETA ULERTZEKO INTERESGARRIAK IZAN DAITEZKEEN DATUAK ETA AIPAMENAK:

Errugbi jokalaria izan da.

2. ELKARRIZKETA: Jokalari profesionalari

Lehen aipatu dudan bezala, kontaktazio prozesua ezinbestekoa da ikerketa gauzatzeko momentuan, modu horretan, elkarrizketatuarekin harremanetan jartzen baitzara.

Aurreko kasua, ikerlari bat elkarrizketatu genuenez bigarren honetan, kirolean jakituna zen emakume batekin jarri nintzen kontaktuan, behin, teknikoaren hitzak eskuratuak nituelarik, ikuspuntu pertsonalean oinarritzen zen bizipena ezagutu nahi nuen; izan ere, ikuspuntu edota bizipen desberdinak bilduz, ikerketa aberatsagoa bilakatu egingo zen.

Hau horrela izanik, Euskal Herrian eta Espainian emakumezkoen errugbian ezagunenarikoa izan den pertsona batekin harremanetan jarri nintzen. Honakoa, Euskadiko selekzioan jokatu du 1999tik -2011ra, Espainiakoa 2002tik 2011ra, Europako txapelketetan 6 urtez parte hartu izan du, Vi nazioetan lau aldiz jokatu du eta munduko bi txapelketetan parte hartu du. Beraz, esan dezakegu, palmares ederra duen emakume bat elkarrizketatu nuela.

Bigarren elkarrizketatuarekin kontaktazioa mugikorren bitartez izan zen, errugbi jokalaria naizenez gure elkarrizketatua urte askotan zehar jokatu egin duen taldean, bere telefonoa eskuratzeko ez zen lan zaila izan. Kirolariarekin kontaktuan jarri bezain laster baiezkota eman zidan, hortaz, berriro ere, elkarrizketa sakoneko bi puntu garrantzitsu lortu genituen (igorlearen aukeraketa eta honen onarpena).

Beraz, lekua konfirmatzea geratzen zitzaigun, beti ere gogoan izanik, konfiantzazko zein lasaitasuneko eremua izan behar zela. Hortaz, gertutasuna zein erosotasuna medio, Gasteizko parke batean elkarrizketa egitea erabaki genuen.

Elkarrizketaren garapenarekin bukatu baino lehenago azaldu beharra dago, elkarrizketaren iraupena 28 minutukoa izan zela eta bertan aurrekoan bezala bederatzi galdera egin nituela. Era berean, berbaldia grabagailu baten bitartez gorde egin zen, modu honetan informazioaren zaintza eta transkripzioen erraztasuna bermatuz.

ELKARRIZKETATUAREN FITXA TEKNIKOA

IZEN ABIZENAK: Aitziber Porras Conde

TELEFONOA: 652 76 80 81

SEXUA: Emakumea

ADINA: 39

HERRIA: Gasteiz

ELKARRIZKETA EGIN ZEN LEKUA: Prado parkea, Gasteiz

EGUNA ETA ORDUA: Apirilaren 7an, 17:00

ELKARRIZKETAREN IRAUPENA: 28:23 minutu

ELKARRIZKETATUAREN BIBLIOGRAFIA LABURRA:

- Euskadiko selekzioan 1999tik 2011ra
- Espainiako selekzioan 2002tik 2011ra.
- Europako sei txapelketetan parte hartu du.
 - Tolouse 2004
 - Madril 2007
 - Amsterdam 2008
 - Estocolmo 2009
 - Strasburgo 2010
 - A Coruña 2011
- VI Nazioetan parte hartu du 2003tik 2006ra.
- Munduko bi txapelketetan parte hartu du.
 - Bartzelona 2002
 - Kanada 2006

ELKARRIZKETA ULERTZEKO INTERESGARRIAK IZAN DAITEZKEEN DATUAK ETA AIPAMENAK:

Elkarrizketa gazteleraz egin zen, horregatik transkripzioak ere gazteleraz daude.

4.2 Eztabaida taldeak

“Una técnica no directiva que tiene por finalidad la producción controlada de un discurso por parte de un grupo de sujetos que son reunidos, durante un espacio de tiempo limitado, a fin de debatir sobre determinado tópico propuesto por el investigador.”

Gil Flores, Javier Metodología de investigación

Aurreko definizioan eztabaida taldearen osagai desberdinak aurkitu daitezke; diskurtso kontrolatua, informazioa, taldea edota subjektu kopurua, elkartaratzea, denbora mugatua, debatea, ikertzailea ...

Hauek guztiak ere, ezaugarri bereziak izango dituzte eztabaida taldeak sortu ahal izateko, hori dela eta, honako apartatuaren bitartez, bakoitzak duen berezitasunak eta nire ikerketan ze motatakoak erabili ditudan azalduko dut.

Hala eta guztiz ere, eztabaida taldea puntuz- puntu kodifikatu baino lehenago, egokiagoa izango da metodologiaren atalean azaldu dugun bezala, teknika honen hautaketaren zergatia aipatze dagokit. Metodo honen helburu nagusia gizakiaren partetik informazioa ezagutzea da

eta horretarako modurik egokiena subjektuari, berari galdetzea da. Lehen ikusi dugu, sakoneko elkarrizketak gauzatzeko sistema berdina erabiltzen da eta oraingoan, eztabaida taldeetan hura erabili dugu.

Horrez gain, sakoneko elkarrizketetan ez bezala teknika honen bitartez subjektuen arteko adostasunak eta desadostasuna topatu daitezke, eta modu honetan, ikergaiari jorratu nahi dituzun zenbait ideien bi aukerak aztertzeke aukera ematen dizu. Dikotomia honetan, interesak, balioa, egoerak edo bizipen pertsonalak jartzen dira mahai gainean, hori dela eta, aurrerago ikusiko dugun bezala bi talde eztabaida desberdin egingo ditut, honela testuinguruaren garrantzia ere aztertzeke aukera izango baitut.

Lehendabiziko paragrafoan aipatu dugu, diskurtsoaren kontrola eta horrek zerikusi zuzena dauka gidoiarekin eta gidoian erabiltzen den denborarekin alegia. Eztabaida taldeetan gidoia ez da itxia, beste hitz batzuetan, gidoia egoeraren arabera moldatu egiten da, hala ere, egia da ikertzaileak kontrolatu beharreko asuntokia dela, gaien ordena, denbora eta pausak guztien artean errespetatu daitezken.

Bestetik, teknika honetan ikertzailearen lana edo kasu honetan moderatzailearen lana gutxietsi egiten den arren berebiziko garrantzia du, honek konfiantzazko giroa sortu ez ezik eztabaida irauten duen denbora ere gidatu behar du, eta horrez gain, bitartean, galderak eta gaiak errespetatzen direla egiaztatu behar du.

Gradu Amaierako Lanean egindako eztabaida talde kasu bakoitzarekin hasi baino lehenago, hauen osaketaren inguruan informazioa plazaratuko dut. Autore desberdinek azaltzen dutenen arabera (Juaristi, Gil, Lederma...) ez dago taldea eratzeko zenbaki perfekturik, hau da, ez dago pertsona kopuru espezifikorik talde eztabaida egokirik eratu ahal izateko. Hala eta guztiz ere, partaide gutxienezkoa eta gehienekoa badago, minimoa 3 edo 4 izango ziren eta maximoa 10 edo 12.

Aipatu bezala partaide kopurua berebizikoa da; izan ere, honen arabera taldearen izaera era batekoa edo bestekoa izango da; gutxi badira adibidez haien artean oihukatuko dira, asko badira taldea dinamikoa izan daiteke baina azpitaldeak sortu daitezke, kopurua txikia bada isiluneak eman daitezke, taldea oso handia bada moderatzailearen lana zaila izango da etab. (Gil Flores, 1993, o.203)

1. EZTABAIDA TALDEA: Talde heterogeneoa

Behin gidoia idatzita eta taldearen izaera definituta neukalarik, eztabaida taldearen partaideekin kontaktuan jarri nintzen, tituluan aipatu bezala honako talde hau heterogeneoa izango zen, hau da, honako talde honetan, ideologia, adin eta sexu desberdineko pertsonak sartu nituen.

Gil Flores autorearen arabera, heterogeneitatea bizipenen, pertzepzioen eta ikuspuntuaren aniztasuna ekarri ez ezik gatazkak ere sor ditzake, beraz, eman daiteke kasua non denbora berdinean informazio kopuru gutxiagoa eskuratzea, hortaz, eztabaidaren produktibitatea galtzea, baina era berean, esan dezakegu lorpen hori anitzagoa izango dela.

Ikergaiaren definizioan eta kasuaren helburuan aurkitu dezakegun bezala, ikerketa eta batez ere, eztabaida taldeak gazteak hartzen ditu lagintzat, hori dela eta, eztabaida talde honetan parte hartzen duten pertsonak 20 eta 30 urte bitartean dituzte. Honako hau talde heterogeneoa den arren, adin tartea antzekoa da eta haien artean zenbait desberdintasun topatu daitezkeen arren (ideologia, sexua, afizioak...) testuinguru antzekoa daukate.

Emakumezkoen Errugbiaren Maskulinizazioa

Partaideen kontaktazioa kasuan kasukoa izan zen; azken batean, sei partaide desberdin izanik, batzuekin harremanetan mugikorraren bitartez jarri nintzen eta beste batzuekin, aldiz, zuzeneko elkarrekintzaren bitartez lortu nuen.

Hasieran, elkarrizketetan partaideak ez bezala, hauek harridura bistaratzen zuten, orokorrean ez baitzekiten zer zen eztabaida taldea eta gai ere nahiko arraroa iruditzen zitzaien. Askoren aburuz, ez ziren gai izango honelako teknika batean parte hartzeko, gainera, ezingo izango zuten ekarpen ugari egin, ez baitzekiten askorik errugbiaren inguruan.

Horren aurrean, gaia ez ezik teknikaren zentsua ere azaldu nien, honela harridura zena normaltasunera pasatu zen.

Talde konfirmatuta nuelarik (bi emakumez eta lau gizonez sortutako taldea) zitaren espazioa aukeratzea geratzen zen, hau da, eztabaida taldea aurrera eramateko lekua erabakitzea. Gertutasuna eta erosotasuna hizpide, Adurtzako Auzo Elkartearen egitea ebatzi nuen, bertan bilerak egiteko gela ugari baitzeuden eta orokorrean ez ziren erabiltzen.

Eztabaida talde heterogeneoaren garapenarekin bukatzeko aipatu beharra dago, solasaldiaren iraupena nahiko mugatua eta motza izan zela 16 minutukoa hain zuzen ere eta bertan, elkarrizketan bezala bederatzi galdera egin nituen. Kasu honetan ere, berbaldua grabagailu baten bitartez irarri zen, honela informazioa babestuz eta transkripzioa erraztuz.

EZTABAIDA TALDEAREN FITXA TEKNIKOA

EZTABAIDAN PARTE HARTU DUTENEN BEREZITASUNAK: Errugbi jokalaria bat (gizonezkoa), eskubaloiko jokalaria (emakumea), kirolik egiten ez duten hiru kide eta gimnasia doan pertsona bat.

SEXUA: Bi emakumezko eta lau gizonezko

ADINA: 21, 22, 23, 24, 25, 26

JATORRIA: Guztiak Gasteizeko biztanleak dira, nahiz eta bat Donostian jaio izan.

EZTABAIDA EGIN ZEN TOKIA: Adurtzako Auzo Elkarte

EGUNA ETA ORDUA: 2017ko ekainaren 30ean 18:30etan.

EZTABAIDAREN IRAUPENA: 16:32 minutu

EZTABAIDATIK LORTUTAKO IDEIA GARRANTZITSUENAK: (Ondorioetan agertuko dira azalduta)

- Partaideek ez dute pentsatzen emakumeentzako kirolak edota gizonezkoentzako kirolak dauden, baina gizarteak hala markatzen du.
- Gizartearen onargarritasuna garrantzitsua da eta eragina du.
- Gizartean dago arazoa baina "gu" gara gizartea, beraz, aldatu dezagun.
- Errugbia maskulinizatutako kirola da
- Errugbiari atxikitzen zaizkion estereotipoak ez dator bat ezarrita dagoen feminitate ereduarekin.
- Aurreiritziak emakumezkoen errugbiaren hedapenean zailtasunak jartzen ditu.
- Komunikabideen papera oso garrantzitsua aurreiritzi eta estereotipoen zabalkuntzan.

2. EZTABAIDA TALDEA: Homogeneoa

Behin gidoia idatzita eta taldearen izaerari moldaturik nuelarik, solasaldian parte hartuko zuten kideekin kontaktuan jarri nintzen, oraingoan talde homogeneoa izango zen, hots, oraingoan guztiak emakumezkoak izan ez ezik errugbi jokalaria ere izango ziren, eta hauen artean desberdintasun ugari egonda ere, gai honetan antzeko testuinguru bat izango zuten.

Inguru berekoak izatearen sentimendua partekatzea erosotasuna eta konexioa sortzen du partaideen artean, hori dela eta, nolabaiteko askatasuna sortzen da gai baten inguruan eztabaidatzeko, gai baten inguruan haien ideiak, pentsamendua, portaerak eta sentimenduak zabaltzeko (Gil Flores, 1993, o.204)

Aurreko paragrafoan argi eta garbi islatu zen gure eztabaidan baina hura, ondorioen pasartean azalduko dugu.

Lehen aipatu bezala, ikergaiaren definizioan zein kasuaren helburuan azaltzen da eztabaidan gazteek parte hartzen dutela eta berez, ikerketa ere bertara moldatzen dela. Kasu honetan, eztabaida homogeneo honen partaideak 17 eta 25 urte bitartean kokatzen dira.

Talde eztabaida honetan parte hartuko zuten kideen kontaktazio kasuan kasukoa izan zen; izan ere, bost partaide izanik eta egia bada ere, guztiak errubi jokalaria direla, bakoitzak bere perfil autonomoa du eta bakarkako selekzioa egin nuen. Hala ere, orokorrean guztiekin mugikorraren bitartez harremanetan jarri nintzen

Aurreko eztabaida taldean bezala, kasu honetan partaideek ere harridura sumatu zuten, hauek ere ez baitzekiten zertan arituko ziren. Hala ere, azaldu bezain laster, laguntzeko prest egon ziren.

Errugbi jokalaria guztiak baiezkoa eman zidatenean elkarrizketaren espazioa aukeratu behar izan nuen. Aurrekoan bezala, Adurtzako Auzo Elkarteko gela bat alokatzeko aukerarik izan ez nuenez, oraingoan Errekaleor Auzo Askeko etxebizitza batean egin genuen (aurrez jabeari baimena eskatuta) honela, etxekotasuna eta erosotasuna lortuz.

Berbaldi honen analisiarekin amaitzeko ezin bestekoa da aipatzea, honen iraupena bestea bezala nahiko murrizta eta mugatua izan zela; izan ere, soilik 22 minutu iraun zituen eta honakoan, galderak hamabi izan ziren. Beste tekniketari bezala, oraingoan ere, berbaldia grabagailuaren bitartez gorde ziren, honela informazioa zainduz eta transkripzioa erraztuz.

EZTABAIDA TALDEAREN FITXA TEKNIKOA

EZTABAIDAN PARTE HARTU DUTENEN BEREZITASUNAK: Emakumezkoen errugbiko jokalaria

SEXUA: bost emakume

ADINA: 17,18, 19, 22, 23

JATORRIA: Guztiak Gasteizeko biztanleak dira, nahiz eta bi kanpoan jaiok izan bat Gernikan eta bestea Trapagaranen.

EZTABAIDA EGIN ZEN TOKIA: Errekaleorreko Auzo Askean.

EGUNA ETA ORDUA: 2017ko uztailaren 3an 19:30etan.

EZTABAIDAREN IRAUPENA: 22:04 minutu

EZTABAIDATIK LORTUTAKO IDEIA GARRANTZITSUENAK: (Ondorioetan agertuko dira azalduta)

- Emakumezkoen errugbian diskriminazioa dago
 - Ikusgaitasuna
 - Ekonomikoa
 - Laguntza
 - Jokalarien partetik
 - Federazioaren partetik
- Heteropatriarkatuaren isla dago kirolean
- Errugbiaren estereotipoak
 - Bortizkeria
 - Indarra
- Feminitate eredu ez da erreal
- Aurreiritziak emakumezkoen hedapenari zailtasunak jartzen dizkio

4.3 Gaien analisia

Gradu Amaierako Lan honen laugarren puntuari bukaera emateko, ikerketan zehar azaleratu diren gaien analisia egingo dut, horretarako teknika desberdinetan izan dudana informazioa batu zein ordenatu egingo dut.

Analisiaren azalpenarekin hasi baino lehenago, tekniketan behin da berriz azaldu diren hitz batzuen azpimarratzea egin nahiko nukeen; azken batean, hitz hauek sortzen duten zerrenda ikusi ostean, ikerketa guztian zehar izandako ideia garrantzitsuen isla izan dezakegu.

Diskriminazioa, onargarritasun falta, estereotipoak, komunikabideak, hedapena, maskulinizazioa, feminitate erreal, eredu at egotea.

Gaien azterketa honetan berebizikoa da marko teorikoaren bitartez izandako zenbait datu berreskuratzea, horretarako gizarte eraikuntzaren kontzeptua gogora ekarriko dugu, honakoa jendartearen ikuspuntuaren arabera sortutako ebaluazio zein sailkatzeko sistema bat da. Hau horrela izanik, estereotipoak zein generoa, eta hortaz, maskulinizazioa ere eraikuntza bat direla aipatu beharra dago.

Marko teorikoari beste behin ere garrantzia ematen, bertan agertutako item berria berreskuratuko dugu, generoa eta sexua ez direla gauza berdina (askotan bati bestea atxikitzen zaion arren). Orain azaldutakoa eta aurreko paragrafoan aipatutako horrela izanik, maskulinoa izatea, gizonezkoei ezarritako genero pertzepzioaren barruan kokatuko da, honela gizonezkoak era batean edo bestean jardun behar dutela azaleratuz, honelako ikuspuntua bai jarrerei bai pentsatzeko moduei eragiten baitu. Hortaz, emakumezkoen errugbia maskulinoa dela esaten dugunean ari gara azaltzen, (gizartearen pertzepzioaren arabera) emakumezkoek izan beharko luketen jarrerekin bat ez datorrela, eta era berean, errugbia gizonezkoei “egokituagoa” dagoela.

Honelako baieztapenak eman ostean paradoxikoa iruditu daiteke, bi eztabaida taldeetan gizonezkoentzako eta emakumezkoentzako kirolak daudela, hau da, ea kirolak ere banaketa binokioaren bitartez sailkatuta daudela galdetu nienean guztiek aho batez ezezkoa azaleratu egin zidaten. Hala ere, egia da zenbaitek iritzi pertsonalean honelako bereizketarik egon beharko ez zukeela argudiatu zidaten, honela ere errealitatean desberdintzea existitzen dela azaleratuz.

Beraz, egia esanda badaude gizonezkoentzako eta emakumeentzako kirolak edo behintzat gizartea hala uste du, eta horrekin batera ikerketan zehar sarritan agertu zaizkigun bi hitzak gogoratu nahiko nituzkeen “eredutik at”. Gaien analisia ikusirik, historian zehar zure pertsonari zegokion banaketaren barne zeure burua ez kokatzeagatik “eredutik at” geratzen zinen, horrek askotan onargarritasunarekin edota hobeto esanda onargarritasuna ezarekin kontaktuan jarritz.

Honakoa, ikerketan eta sakoneko elkarrizketetan zehazki garatzen den kontzeptuarekin bat dator, feminitatearekin alegia, beste hitz batzuetan, feminitate eredu horretatik at geratzea hain zuzen ere. Teknika desberdinetan parte-hartutako pertsona desberdinen arabera, feminitatea ez da erreala; azken batean, hauen ustetan, ez du laginketa probabilistikoa kontuan hartzen, hau da, gizartean daude emakume gehienak era batean edo besteak rol horretatik at geratzen da, eredutik at kasu. Hortaz, esan dezakegu partaide hauen arabera, gizarte eraikuntzaren bitartez transmititutako balore hegemonikoek ez dutela gizartearen laburpen egokirik egiten.

Feminitateak emakume ugari at uzten baditu horiek zer dira galdetuta honako erantzuna jaso dugu: Ikerketan elkarrizketatutako baten arabera *“feminitatea norbanakoa sentitzen du, inork ezin dit niri esan nola sentitu behar dudan nire feminitatea”*.

Orduan, *“Ba al dago feminitate absoluturik?, hau da, “feminitatea bat eta bakarra al da?”*

Eta lehen aipatu dugun bezala, maskulinitatea gizarte eraikuntza den heinean feminitatea ere gizarte eraikuntza bat da, eta hori horrela den momentutik *ba al dago aukerarik gizabanakoak bere kabuz feminitate edota maskulinitate propiorik eraikitzeke?*

Honelako galderak egin ostean eta gaien analisiarekin jarraitzeko diskriminazio hitza berrartuko dut, oraingoan, emakumezkoak diren errugbi jokalariek ikerketan zehar azalerratu dituzten zenbait adibide bistaratu nahiko nituzkeen, honakoa kasuak partikularrak diren arren, jendartean egunerokotasunean gertatu daitezke eta gertatzen den egoera bat azaltzen dute.

Eztabaida talde homogeneousko partaide baten hitzetan (eranskinetan agertzen da eztabaida guztia): *“Arbitroek gurekin askotan duten jarrera askotan da ez da serio, guregana etorri eta badirudi azaldu behar dizkigutela arau guztiak eta orduan, guk ez dakigula ezer ere ez. Nik ikusi nahiko nuke, horietako arbitro bat (guri tokatzen zaizkigun horietako bat) mutilengana joaten eta ea zer esaten duten.”*

Edota beste kasu batean, Dorleta Ugaldek berriro ere arbitroen inguruan aipatutako zenbait kontu (eranskinetan agertzen da elkarrizketa osoa): *“Jokatu genuen lehenengo partidua, kapitaina izan nintzen, oso ondo ari ginen jolasten baina talde baten kontra oso biolentzia handiarekin eta zikin zegoena eta gu orduan lehenengo partidua ari ginen jolasten eta orduan taldea pixka bat urduri zegoen, beraz esan zidaten “esaiozu arbitroa zer egiten ari diren”, nik uste intimidazio estrategia baten barruan, eta arbitroarengana zuzendu nintzenean esan zidan “es que esto es rugby, sino que queréis rugby iros a casa a fregar.”*

Honako aipu hauetan ikusgarria da jokalariek pairatzen duten diskriminazioa, askotan instituzioek hauekin tonu paternalista bat izan ez ezik diskriminazioaren igorle ere badira. Diskriminazioaz ari garela, esan beharra dago ikerketan zehar ikusi bezala, diskriminazioa ez dela soilik onartagarritasunean geratzen baizik eta, hizpide instituzionalak, ekonomikoak, kulturalak edota laguntzaileak dituela bere barne. Hau da, diskriminazioak emakumezkoen kirol honen eremu desberdinetara zabaltzen dela. Federazioaren errekonozimendu falta diskriminazio honen isla da, laguntza ekonomikoak edota “soldatak” diskriminazio honen isla dira, komunikabideetan duten ikusgaitasun gutxietsia diskriminazioaren isla da ...

Hortaz, ikerketan zehar errepikatu bezala emakumezkoaren presentzia errugbian ez dago ondo ikusia eta horrek askotan, diskriminaziora darama. Marko teorikoan azaldu bezala, “naturaltasuna” kuestionatzen duten kirolak baztertuak izaten dira (Markula, 2003, o. 93).

Gauzak horrela izanik eta diskriminazio mota ugari daudela ikusirik, horietan gehienetan protagonista papera hartzen duten eragileak ditugu, hedabideak hain zuzen ere. Honakoa argi eta garbi geratu zen, 2016ko Joku Olimpikoetan izandako notiziak ikusi ostean, kontua ez da soilik kirolariak gutxien dituztela emakumeak izateagatik, baizik eta askotan estereotipoen hedatzaile zein sortzaile nagusienak direla eta gehienetan irudi perfektu baten mirabeak kreatzen dituztela, modu berdinean, gorputz eredu desberdinen bazterkeria sustatzen dituztela.

Laburbilduz, gaien analisi honetan ikerketan zehar izandako ideia nagusien lotura zein analisia aurrera eramanez, honela azterketarako beharrezkoak diren zenbait puntu azpimarratuz, hala nola diskriminazioa edota gizarte eraikuntza terminoak.

5. ONDORIOAK

Gradu Amaierako Lan honen ondorioekin hasi baino lehenago, item hau bi taldeetan sailkatuko dudala aipatuko dut, honela bi motatako ondorioak azaleratuz; batetik, ikerketan zehar erabilitako tekniken inguruko hausnarketa eta bestetik, ikergaiarekin zerikusia duten ondorioak.

5.1 Metodologiarekin lotutako ondorioak

Askotan errepikatu izan dudana moduan Gradu Amaierako Lan hau gizarte ikerketa bat da, horregatik, metodologia eta honen garapena berebiziko garrantzia dute. Hortaz, metodologiaren inguruko ondorioak zein hausnarketak azalera beharrezkoa iruditzen zait. Lanean ikusi bezala hiru teknika desberdin erabili ditut; sakoneko elkarrizketak, eztabaida taldeak eta errebisio bibliografikoak. Bakoitzak bere zailtasunak zein berezitasunak izan ditu eta honako pasarte honetan horiek azaldu egingo ditut.

Lehenik eta behin, nabarmendu nahi dut erabilitako metodologia egokia iruditu zaidala ikergaia zein zen kontua harturik; izan ere, gizarte ikerketa bat aurrera eramateko jendarteari galdetzea egokiena iruditzen zait, eta teknika desberdinak erabili izan ditudanez, erantzun desberdinak jasotzeko aukera izan dut, honela lana aberastuz.

Erritmoa eta ordena, beti izan dira ezinbestekoak teknika metodologiakoak modu egokian garatzeko, eta egia da, niri zailtasun ugari sortu dizkidala denbora kontrolatzearen asuntza, eta are eta gehiago, sakoneko elkarrizketetan gidoiaren ildo bideratzea. Hala eta guztiz ere, hauek normaltasunez bideratu dira zenbait kasuetan motz geratu izan diren arren.

Ondorioekin bukatzeko eta lanari amaiera emateko, eztabaida taldeen arteko konparazio txiki bat egingo dut; azken batean, elkarrizketa sakonetan, ez ziren aldaketa askorik izan ez forma aldetik ez bertan jasotako informazioaren partetik, baina eztabaida taldeetan estruktura zein ingurunea ere asko aldatu zen.

Onartu beharra daukat, eztabaida taldeetan parte hartu zuten kideak testuinguru berdina zeukatela, gehienak gasteiztarrak zirela, guztiak 17-27 urte bitartean zituztela, guztiak euskaldunak zirela (eta honako datua Gasteizen nahiko adierazgarria da) eta gehienak ere, era batean edo bestean, errugbiaren inguruko kontuak entzunak zituztela. Beraz, alde horretatik, talde heterogeneoa ere, nahiko antzeko egiturak ditu.

Emakumezkoen Errugbiaren Maskulinizazioa

Hala eta guztiz ere, hauetan sortutako giroa oso desberdina izan zen, talde heterogeneoan haien artean ezagutzen ez zirenez eta gaiaren inguruko jakintasun ugariarik ez zutenez noiz behinka isiluneak sortzen ziren, hori gutxi balitz, gehienetan hitz egiteko orden artifizial bat eratzen zen.

Talde homogeenan aldiz, konfiantza handiagoa zegoenez hitz egiten zutenean batzuetan zapaldu egiten ziren, eta askotan antzeko komentarioak egiten zituzten, honela bata bestearen argudioa birbaieztatuz.

Hauen arteko desberdintasunetan sartuta, aipatzekoa da talde homogeenan guztiak errugbian jolasten zuten emakumeak zirenez, haien argudioak izandako bizipenetan oinarritzen ziren eta gehienetan jokalaria bezala izandako egoerak azaleratzen zituzten.

Talde heterogeneoan, berriz, orokorrean 3. pertsonan hitz egiten zuten, gaiaren inguruko ikuspuntua islatuz, baina hori bai, askotan problematikatik at geratuz.

Horrenbestez, zenbait ondorio atera daitezke: emakumearen presentzia errugbian ez dago ondo ikusia, errugbia ez dator bat feminitate rolekin, gizarte ikerketa egitearen erabakia egokia izan da eta azkenik, emakumezkoen errugbiak pairatzen duen diskriminazioa bere hedapenari oztipoak jartzen dizkio.

5.2 Ikergaiarekin lotutako ondorioak

Puntu honetara iritsita berebizikoa da helburuak zein hipotesiak gogoratzea, geroago ondorioen azalpena ulergarriagoa izan dadin. Ikerketa honen xede nagusia emakumezkoen errugbiari atxikitzen zaion maskulinizazioa azaleratzea zein aztertzea da. Horretarako, lanaren sarreran azaldu bezala hiru hipotesi plazaratu ditut; batetik, emakumezkoen errugbia ez datorrela bat feminitate rolekin, bestetik, emakumearen presentzia errugbian ez dagoela ondo ikusia eta bukatzeko, errugbia praktikatzea jarduera maskulinozat hartzen dela.

Beraz, ikerketan erabilitako teknika desberdinen bitartez (talde eztabaiden, elkarrizketa sakonen eta errebisio bibliografikoen bitartez) eskuratutako informazioarekin hipotesiei erantzun posibleak eskainiko dizkiot.

Jasotako informazioa kudeatu ostean esan beharra dago, emakumezkoen errugbia maskulinizatua dagoela. Kontua da, aurreiritziak ez direla soilik zelai eremura mugatzen, hau da, estereotipoek ez dutela bakarrik partiduak irauten dituen 80 minutuak kalifikatzen edota hauek ez dira jolasaren ezaugarrietara mugatzen, baizik eta honelako pentsamoldeak kirolarietara zabaltzen da, eta kasu honetan, emakumezkoen errugbia praktikatzen duten pertsonetara, honela batzuetan hauen nortasuna edota orientazio sexuala kuestionatzera iritsiz.

Hori gutxi balitz, marko teorikoan azaldu bezala, historian zehar emakumezkoak sistema patriarkatuaren eraginez, esparru pribatuan aritu izan dira, gizarte estigma desberdinen (eraginez), gizonezkoari eremu publikoa zegokionez, bizitza publikoaren eta hortaz, kirolaren (eremua) jabegoa ere izan dute, honela emakumea horretatik at geratuz.

Hori dela eta, kirola bezalako munduak edota eremuak, androzentrikoak bilakatu egin dira.

Historia aldatuz joan izan den arren eta emakumea espazio publikoaren jabegoa apurka apurka eskuratzen joan den arren, emakumezkoen presentzia kirolean ez dago normalizaturik eta hori argi eta garbi, geratu da, elkarrizketetan aipatutako zenbait kontuetan.

Emakumezkoen Errugbiaren Maskulinizazioa

Hortaz, ikerketa guztian zehar azaldutako informazioa kontuan harturik eta ondorioen pasarte hauetan azaleratutako datuak medio, aurrez botatako hipotesi guztiak baieztatu daitezkeela esan dezakegu; azken batean, errugbia maskulinoztat hartzen den heinean ez dator bat feminitate rolekin, eta era berean, gizonezkoen “egokitutako” kirola dela esatean zuzenean emakumea baztertua izaten da, modu honetan, honako jardueran bere presentzia ondo ikusia ez dagoela justifikatzen da.

Hala eta guztiz ere, ondorioen pasarte honekin bukatu baino lehenago emakumezkoak ziren errugbi jokalarien eztabaida taldean aipatutako adibide bat azpimarratu nahi dut; izan ere, adibide honetan ikergaiaren helburua argi eta garbi azaltzen da, diskriminazioa azaleratzea alegia. Bestalde, hipotesiekin zerikusia duela uste dut.

Aurten abuztuaren 22tik 24ra Nazioarteko Errugbi Barneratzailearen Txapelketa izango da (IMART 2017) Gasteizen, honako txapelketan aniztasun funtzionala duten pertsonak jolastu dute, hori dela eta, honako diziplina bar-eratzailerak (integratzailea) izena du. Hala eta guztiz ere, IMAS (International Mixed Ability Sports) erakundearen arabera, txapelketa honetan ezin dute emakumeek parte hartu, txapelketa maskulinoa baita. Modu honetan irakurrita, arrazoizkoa iruditu daiteke, baina gaiaren inguruan informazio gehiago eskuratzen dugun heinean bai esaldian bai asuntan diskriminazioa dagoela argi geratzen da: munduan dauden modalitate honetako talde gehienak mistoak dira, hau da, sexu guztietako kideak daude, gainera, bertan daude laguntzaileak (jarduera hau aurrera eramateko zenbait pertsonen beharra dago) emakumezkoak eta gizonezkoak dira.

Kontuan hartu behar dugu, lehen marko teorikoan azaldu bezala emakume gutxi jokatzen dutela errugbira eta hortaz, emakumezkoen errugbi taldeak garatzea zailtasun handia duela. Beraz, ezin da pentsatu Nazioarteko Txapelketa Barneratzailea gauzatu ahal denik soilik emakumeentzako, taldeak sortzea ia ezinezkoa izango baitzen.

Hau horrela izanik, urrutetik ikusten da ekitaldi honetan emakumezkoak baztertuak direla eta erakunde diskriminazio hau aurrera eramanez ezin promovionatu ere egiten dutela.

Laburbilduz, honekin guztiarekin, behin ikergaiari botatako hipotesiak baieztatu ditugularik, emakumearen presentzia kirolean eta gure kasuan espresuki, errugbian ondo ikusita ez dagoela berresten dut. Honen arrazoia ere, gure beste hipotesien konfirmazioa izan daiteke, emetasun rolekin bat ez datorrela eta horregatik lekuz kanpo geratzen direla emakumeak eta gainera jendartearen ikuspuntuaren arabera, jarduerak dituen ezaugarri propioengatik maskulinoztat hartzen denez horrek bazterkeria sortzen du.

BIBLIOGRAFIA

- Baena M (2016ko urtarrilaren 10^a). Rugby femenino para combatir estereotipos, La Marea Revista Mensual. Sarean: <http://www.lamarea.com/2016/01/10/rugby-femenino-para-combatir-estereotipos/>
- Barleta, S (2011). Deporte, género y exclusión: Fútbol y Rugby Femeninos. II Jornadas del Centro Interdisciplinario de Investigaciones en Género, 28,29 y 30 de septiembre de 2001, La Plata, Argentina. En Memoria Académica. Sarean:http://www.memoria.fahce.unlp.edu.ar/trab_eventos/ev.4912/ev.4912.pdf (Kontsulta-data: 2017-05-30)

- Bejarano Celaya, M (2013). Entre lo público, privado y doméstico: mujeres bajo un techo de cristal. *Revista GénEROS* Vol.36 , 60-68o.
Sarean: http://bvirtual.uco.mx/descargables/319_entre_lo_publico.pdf
(Kontsulta-data: 2017-04-04)
- Berbel, S (2004). Sobre género, sexo y mujeres. *Mujeres en Red, El Periódico Feminista*. 1-4o.
Sarean: http://www.mujeresenred.net/IMG/article_PDF/article_a33.pdf
(Kontsulta- data: 2017-08-30)
- Bourdieu, P (2000). *La dominación masculina*. Barcelona: Editorial Anagrama
- Buñuel Heras (1994). La construcción social del cuerpo de la mujer en el deporte. *Revista Española de Investigación Sociológica*. V.68, 97-118o.
Sarean: http://www.reis.cis.es/REIS/PDF/REIS_068_07.pdf
(Kontsulta-data:2017-04-04)
- Butler, J (2006). *Deshacer el género*. Barcelona: Paidós.
- Carle, A; Nauright, J. (1999). A Man's Game?: Women Flaying Rugby Union in Australia. *Sports Library*, 55-73o. Sarean:
<http://library.la84.org/SportsLibrary/FootballStudies/1999/FS0201f.pdf>
(Kontsulta-data:2017-07-20)
- De Beauvoir, S (1998). *El segundo sexo*. Madrid: Cátedra.
- Della Ventura González, A (2015-2016) Género, Identidad y Performatividad en Judith Butler. Sarean:
<https://riull.ull.es/xmlui/bitstream/handle/915/2642/GENERO%2C%20IDENTIDAD%20Y%20PERFORMATIVIDAD%20EN%20JUDITH%20BUTLER.pdf?sequence=1&isAllowed=y>
- Gil Flores, J. (1993). La metodología de investigación mediante los grupos de discusión, Sevilla: Gredos.
- Gonzalez Vazquez, A. (2009) Michel Foucault, Judith Butler, y los cuerpos e identidades críticas, subversivas y deconstructivas de la Intersexualidad. *ISEGORÍA. Revista de Filosofía Moral y Política*, 235-245o. Sarean:
<http://isegoria.revistas.csic.es/index.php/isegoria/article/viewFile/657/659> (Kontsulta-data: 2017- 08-30)
- Juaristi, P. (2003). *Gizarte ikerketarako teknikak. Teoria eta adibideak*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- La Nación (2014ko abenduaren 21^a). Guerreras del rugby, La Nación Noticia Independiente. Eskuragarri: <http://www.lanacion.com.co/2014/12/21/guerreras-del-rugby/>

- Markula P (2003). The Technologies of the Self: Sport, Feminism, and Foucault. *Sociology of Sports Journal*. Vol. 20, 87-107o. Sarean: <http://journals.humankinetics.com/doi/abs/10.1123/ssj.20.2.87?journalCode=ssj> (Kontsulta-data:2017-05-30)
- Martín Horcajo, M. (2006). Contribución del feminismo de la diferencia sexual a los análisis de género en el deporte. *Revista Internacional de Sociología (RIS)* VOL. LXIV, Nº 44, 111-131pp. Sarean: <http://revintsociologia.revistas.csic.es/index.php/revintsociologia/article/view/30/30> (Kontsulta-data:2017-08-15)
- Martínez Herrera, M (2007). La construcción de la feminidad: la mujer como sujeto de la historia y como sujeto de deseo. *Actualidades en Psicología*, Vol. 21, 79-95 o. Sarean: <http://pepsic.bvsalud.org/pdf/apsi/v21n108/v21n108a04.pdf> (Kontsulta-data: 2017-04-04)
- Miranda, N ; Antunez, M (2006). Los estereotipos de Género en la Práctica de Actividades Físicas y Deportivas. *Fazendo Género*. 1-7o. Sarean: http://www.fazendogenero.ufsc.br/7/artigos/A/Antunez-Miranda_21.pdf (Kontsulta-data:2017-04-04)
- Montón Subías, S. (2000). Las mujeres y su espacio: una historia de los espacios sin espacios en la Historia. *Revista del S.A.ET*. Vol. 22, 43-59o. Sarean: <http://www.archaeology-gender-europe.org/docs/sandra3.pdf> (Kontsulta-data: 2017-07-20)
- Navarro, M; Stimpson,C (1999). *Sexualidad, género y roles sexuales*. Buenos Aires: Fondo de Cultura Económica
- Preciado, B. (2002). *Manifiesto contra-sexual*. Madrid: Editorial Opera Prima.
- Puig N (2000). El deporte en la perspectiva del año 2000. *INEF*, 123-139o. Sarean: <http://www.raco.cat/index.php/Papers/article/view/25115> (Kontsulta-data: 2017-08-15)
- Ragin, C (2007). *La construcción de la investigación social. Introducción a los métodos y su diversidad*. Bogota: Cultura Libre
- Rojas Soriano, R. (2013). *Guía para realizar investigaciones sociales*, México DF: Plaza y Valdez editores.
- Salcedo Miguel, M (1993). *Participación femenina en el deporte*, Vitoria Gasteiz: Emakunde.